

| | | | |
|---|--|---|---|
|  |  <p>Ana Carrere Alkatea Informazioa</p> |  <p>Pedro Unanue 1. Alkateordea Informazioa</p> |  <p>Ainara Rodríguez 2. Alkateordea Informazioa</p> |
| |  <p>Jon Zulueta 3. Alkateordea Informazioa</p> |  <p>Estibalitz Mujika Informazioa</p> |  <p>J. Agustin Alberro Informazioa</p> |
|  |  <p>Maider Lainez Informazioa</p> |  <p>Ascensión Parrón Informazioa</p> |  <p>Daniel García Informazioa</p> |
| |  <p>Petri Romero Informazioa</p> | | |
|  |  <p>Mari Jose Izagirre Informazioa</p> |  <p>Imanol Goenaga Informazioa</p> |  <p>Iñaki Egibar Informazioa</p> |
| |  <p>Ainhoa Elola Informazioa</p> |  |  <p>Olga Hernandez Informazioa</p> |
|  |  <p>Jorge Fernandes Informazioa</p> | <p>Atxiki gabeko zinegotzia</p> |  <p>Alvaro González Informazioa</p> |

Bajak / Karguari uko egiteak



Gregorio Olasagasti
Renuntzia 2015.09.24

- [Udalbatzaren funtzionamendua](#)
- [Udalbatzaren eskumenak](#)
- [Zinegotzien soldatak eta dietak](#)
- [Talde politikoaren asignazioak](#)



Ana Carrere Zabala

Alkatea



Soldata: 44.179,31 euroko soldata gordina urtean (21. maila eta %100eko lanaldia).

Hilabeteko soldata garbia: 2.230,63 €

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitorpena](#)

Karguak:

- Alkatea.
- Tokiko Gobernu Batzarreko lehendakaria.
- Gizarte Zerbitzuak Batzordeko lehendakaria.
- Ingurumen arloko arduraduna
- Allurralde Kiroletako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria.

Ikasketak:

- Soin Heziketa eta Kirol Zientzian lizentziatua.
- Kirol enpresen kudeaketa eta zuzendaritza (graduondokoa)
- Elektrizitatean Maisutza.

Lanbide esperientzia:

- Bera Bera eskubaloi taldean (Donostia) prestatzaile fisiko, teknikari eta klubeko zuzendari tekniko.
- Amara Berri ikastetxean eta Ibai ikastolan (Donostia) kirol koordinatzailea.
- Euskal Eskubaloi Federazioan zuzendari tekniko emakumeen arloan

Hizkuntzak:

- Euskara eta gaztelera.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** udaletxeko 1. solairua.
Berarekin elkartzeko aurrez hitzordua eskatu behar da.
- **Telefonoa:** 943 30 08 29
- **Helbidea elektronikoa:** alkatetza@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:**



Pedro Unanue Orcoyen

1. Alkateordea



Soldata: Ez du soldatarik jasotzen. Udaltzarretan, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuretan eta dagozkion Batzorde Irizpenemailetan parte hartzeagatik dietak jasotzen ditu (**80,00 €** bilera bakoitzagatik).

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitortpena](#)

Karguak:

- 1. Alkateordea.
- Tokiko Gobernu Batzarreko kidea.
- Zerbitzuak lansaileko zinegotzi ahaldua eta Batzordeko lehendakaria.
- Udaltzaingoaren zinegotzi ahaldua.

Ikasketak:

- Ofizialia.

Lanbide esperientzia:

- Gaur egun, erretiratu.
- Mantenimenduko langile Andoaingo Thyssenkrupp enpresan.

Hizkuntzak:

- Euskara eta gaztelera.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** udaletxe 1. solairua.
Berarekin elkartzeko aurrez hitzordua eskatu behar da.
- **Telefonoa:** 943 30 08 29
- **Helbidea elektronikoa:** punanue@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:**



Ainara Rodriguez Zalakain

2. Alkateordea



Soldata: 29.204,57 euroko soldata gordina urtean (20. maila eta %68,6ko lanaldia).

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitortpena](#)

Karguak:

- 2. Alkateordea.
- Tokiko Gobernu Batzarreko kidea.
- Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentza lansaileko zinegotzi ahaldua eta Batzordeko lehendakaria.
- Euskara Zerbitzuko zinegotzi ahaldua eta Euskararen Normalizaziorako Batzordeko lehendakaria.

Ikasketak:

- Kazetaritzan lizentziatua.

Lanbide esperientzia:

- *Berría* (Andoain) egunkarian erredaktore.
- *Gara* (Donostia) egunkarian erredaktore.

Hizkuntzak:

- Euskara, gaztelera eta ingelesa.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** udaletxeko 1. solairua.
Berarekin elkartzeko aurrez hitzordua eskatu behar da.
- **Telefonoa:** 943 30 08 29
- **Helbidea elektronikoa:** arodriguez@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:**



Jon Zulueta Berastegi

3. Alkateordea



Soldata: 29.204,57 euroko soldata gordina urtean (20. maila eta %68,6ko lanaldia).

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitortpena](#)

Karguak:

- 3. Alkateordea.
- EH-Bildu taldeko bozeramailea.
- Tokiko Gobernu Batzarreko kidea.
- Sustapen ekonomiko, Enplegu eta Gazteria lansaileko zinegotzi ahalduna eta Batzordeko lehendakaria.

Ikasketak:

- Gaur egun, soziologia ikasten.
- Batxillergoa.

Lanbide esperientzia:

- Gaur egun, Hamaika Telebistan (Donostia) zuzendari komertzial gisa.
- Bai & By (Donostia) komertzial sailean.

Hizkuntzak:

- Euskara eta gaztelera.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** udaletxeko 1. solairua.
Berarekin elkartzeko aurrez hitzordua eskatu behar da.
- **Telefonoa:** 943 30 08 29
- **Helbidea elektronikoa:** jzulueta@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:** Twitter: [@jonzulu](#)



Estibalitz Mujika Tolaretxipi



Soldata: 29.204,57 euroko soldata gordina urtean (20. maila eta %68,6ko lanaldia).

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitortpena](#)

Karguak:

- Tokiko Gobernu Batzarreko kidea.
- Hezkuntza eta Kultura lansaileko zinegotzi ahalduna eta Batzordeko lehendakaria.

Ikasketak:

- Gaur egun Musikoterapia graduondokoa bukatzen.
- Piano irakasle titulua.
- Lehen Hezkuntzan diplomatua.

Lanbide esperientzia:

- Gailen Tolaren (Andoain) administrari.
- Loatzo Musika Eskolan (Billabona-Anoeta-Irura) irakasle.
- Sarea 2010 Kultur Elkartean (Usurbil) administrari.

Hizkuntzak:

- Euskara eta gaztelera.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** udaletxeko 1. solairua.
Berarekin elkartzeko aurrez hitzordua eskatu behar da.
- **Telefonoa:** 943 30 08 29
- **Helbidea elektronikoa:** emujika@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:**



Jose Agustin Alberro Irizar



Soldata: Ez du soldatarik jasotzen. Udaltzarretan, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuretan eta dagozkion Batzorde Irizpenemailetan parte hartzeagatik dietak jasotzen ditu (**80,00 €** bilera bakoitzagatik).

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitortpena](#)

Karguak:

- Tokiko Gobernu Batzarreko kidea.
- Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune lansaileko zinegotzi ahalduna eta Batzordeko lehendakaria.
- Ekonomia eta Ogasuna lansaileko zinegotzi ahalduna eta Batzordeko lehendakaria.

Ikasketak:

- Industria maisutza - Delineazioa.

Lanbide esperientzia:

- Gaur egun, erretiratua.
- Orbelan Plásticos enpresan (Andoain) Ofizial teknikoa.

Hizkuntzak:

- Euskara eta gaztelera.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** udaletxe 1. solairua.
Berarekin elkartzeko aurrez hitzordua eskatu behar da.
- **Telefonoa:** 943 30 08 30 – 411 luzapena
- **Helbidea elektronikoa:** alberro@andoain.eus.

Sare sozialetako profilak:



Maider Lainez Lazcoz



Soldata: 42.572,29 euroko soldata gordina urtean (20. maila eta %100eko lanaldia).

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitortpena](#)

Karguak:

- PSE-EE taldeko bozeramailea.
- Allurralde Kiroletako Udal Patronatuko kidea.

Ikasketak:

- Industria Antolaketako Goi mailako Ingeniaritza.
- Industriako Goi mailako Ingeniaritza.
- Lan Arriskuen Prebentzioan masterra, Seguritate, Industria-higienea eta Ergonomia eta Psikosozial espezialetateetan.

Lanbide esperientzia:

- Cita Alzheimer Fundazioan (Donostia) Antolaketa eta Kudeaketa Arduradun gisa.
- Spanset SA (Villabona) Kalitate, Ingurumen eta Lan Arriskuen Prebentzioko Arduradun gisa.

Hizkuntzak:

- Euskara, gaztelera, ingelesa eta frantsesa.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** Anbrosia Olabide Gizarte Zerbitzuetako Zentrua 3. solairua.
- **Telefonoa:** 943 30 08 30 – 413 luzapena
- **Helbidea elektronikoa:** mlainez@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:**





Ascensión Parrón Peguero



Soldata: Ez du soldatarik jasotzen. Udalbatzarretan eta dagozkion Batzorde Irizpenemailetan parte hartzeagatik dietak jasotzen ditu (**80,00 €** bilera bakoitzagatik).

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitorpena](#)

Karguak:

- Zerbitzuak Batzorde Irizpenemaileko kide.
- Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzorde Irizpenemaileko kide.
- Hezkuntza eta Kultura Batzorde Irizpenemaileko kide.
- Gizarte Zerbitzuak Batzorde Irizpenemaileko kide

Ikasketak:

- Lan Zientzian lizentziatua.
- Lan-harremanetako graduatu.
- Lan Arriskuen Prebentzioan Teknikari.
- Kudeaketa integralean masterra: Kalitate, Ingurumen eta Laneko Segurtasun eta Osasuna.

Lanbide esperientzia:

- Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresan (Donostia) izapide eta baimen kudeatzaile.

Hizkuntzak:

- Gaztelera.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuetako Zentrua 3. solairua.
Berarekin elkartzeko aurrez hitzordua eskatu behar da.
- **Telefonoa:** 943 30 08 30 – 413 luzapena
- **Helbidea elektronikoa:** aparron@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:**

Bestelako datu interesgarriak:

- **Argitalpenak:** *Editoriales del 8 de Marzo* en Gehitu Magazine
- **Hitzaldiak:** EHU-UPVk 2014an antolatuako Giza Eskubideen jardunaldietan mahaingurua Jaqueline Karen Atala Rifforekin. “*La importancia de la jurisprudencia materna en la evolución de la jurisprudencia interna de los estados. El caso Atala Riffo y niñas contra Chile: sentencia de 24 de febrero de 2012.*”



Daniel García de la Calle



Soldata: Ez du soldatarik jasotzen. Udaltzarretan parte hartzeagatik dietak jasotzen ditu (**80,00 €** bilera bakoitzagatik).

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitortpena](#)

Karguak:

- Udaltzaren Osoko Bilkurako kide.

Ikasketak:

- Lehen ikasketak eta zenbait prestakuntza ikastaro.

Lanbide esperientzia:

- Gaur egun, erretiratu dago.
- OASA Transformadores enpresan (Donostia) analista gisa.

Hizkuntzak:

- Gaztelera.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuetako Zentrua 3. solairua.
Berarekin elkartzeko aurrez hitzordua eskatu behar da.
- **Telefonoa:** 943 30 08 30 – 413 luzapena
- **Helbidea elektronikoa:** dgarcia@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:**





Petri Romero Pozo



Soldata: Ez du soldatarik jasotzen. Udalbatzarretan eta dagozkion Batzorde Irizpenemailetan parte hartzeagatik dietak jasotzen ditu (**80,00 €** bilera bakoitzagatik).

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitorpena](#)

Karguak:

- Ekonomia, Ogasuna eta Kontuetarako Batzorde Bereziko kide.
- Euskararen Normalizaziorako Batzordeko kide.
- Sustapen ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Batzorde Irizpenemaileko kide.
- Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentza Batzorde Irizpenemaileko kide

Ikasketak:

- Ostalaritza eta Turismoa Teknikari.
- Lanbide Heziketa: Administrari laguntzaile.

Lanbide esperientzia:

- PSE-EE alderdiko administrari laguntzaile Donostian.
- Andoaingo Udaleko Alkatearen idazkari.

Hizkuntzak:

- Gaztelera eta Euskara (PL 1)

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuetako Zentrua 3. solairua.
Berarekin elkartzeko aurrez hitzordua eskatu behar da.
- **Telefonoa:** 943 30 08 30 – 413 luzapena
- **Helbidea elektronikoa:** promero@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:**



Mari Jose Izagirre Iturzaeta



Soldata: 30.047,52 euroko soldata gordina urtean. (20. maila eta %70,58ko lanaldia).

Karguak:

- EAJ-PNV taldeko bozeramailea.
- Hezkuntza eta Kultura Batzorde Irizpenemaileko kide
- Sustapen ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Batzorde Irizpenemaileko kide.
- Allurralde Kiroletako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeko kide.

Ikasketak:

- Unibetsitatera Bideratzeko Ikasturtea.

Lanbide esperientzia:

- Administraria.

Hizkuntzak:

- Euskara eta gaztelera.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** Andoaingo Batzokia – Kaletxiki 2.
- **Telefonoa:** 943 592601 - 688803665
- **Helbidea elektronikoa:** mjizagirre@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:** eajpnvandoain.eus





Imanol Goenaga Egibar



Soldata: Ez du soldatarik jasotzen, ezta ere Udalbatzar edo Batzordeetara etortzeagatik dietarik.

Karguak:

- Zerbitzuak Batzordeko Irizpenemaileko kide.
- Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzorde Irizpenemaileko kide.

Ikasketak:

- Arkitektura 2010.
- Hirigintza (HAEE) 2013

Lanbide esperientzia:

- Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailean aholkulari gisa.
- Arkitekto lanak autonomo gisa.
- HUT! Arkitektura enpresan (Donostia) arkitekto gisa.

Hizkuntzak:

- Euskara, gaztelera eta ingelesa.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** Andoaingo Batzokia – Kaletxiki 2.
- **Telefonoa:** 943 592601 - 688803665
- **Helbidea elektronikoa:** igoenaga@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:** eajpnvandoain.eus





Iñaki Egibar Larrañaga



Soldata: Ez du soldatarik jasotzen. Udalbatzarretan eta dagozkion Batzorde Irizpenemailetan parte hartzeagatik dietak jasotzen ditu (**80,00 €** bilera bakoitzagatik).

Karguak:

- Ekonomia, Ogasuna eta Kontuetarako Batzorde Bereziko kide.
- Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentza Batzorde Irizpenemaileko kide.
- Gizarte Zerbitzuak Batzorde Irizpenemaileko kide.
- Euskararen Normalizaziorako Batzordeko Irizpenemaileko kide.

Ikasketak:

- Enpresa zientziazatzen diplomatua.

Lanbide esperientzia:

- Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako GGBBetako teknikaria.
- Irakasle La Salle Berrozpen (Andoain).
- Eusko Jaurlaritzan begirale eta zuzendari.
- Ikastolen Federazioan udalekuetako begirale eta zuzendari.

Hizkuntzak:

- Euskara eta gaztelera.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** Andoaingo Batzokia – Kaletxiki 2.
- **Telefona:** 943 592601 - 688803665
- **Helbidea elektronikoa:** iegibar@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:** eajpnvandoain.eus



Ainhoa Elola Aranburu



Soldata: Ez du soldatarik jasotzen. Udaltzarretan parte hartzeagatik dietak jasotzen ditu (**80,00 €** bakoitzagatik).

Karguak:

- Udaltzaren Osoko Bilkurako kide.

Ikasketak:

- Zuzenbidean lizentziatua.
- Graduondoko hainbat ikastaro giza-baliabide eta hirigintza arloetan.

Lanbide esperientzia:

- Aholkularitza juridikoa Eusko Trenbideak enpresan (Bilbo).
- Idazkaritza nagusia erakunde publikoan (Bilbo).

Hizkuntzak:

- Euskara eta gaztelera.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** Andoaingo Batzokia – Kaletxiki 2.
- **Telefona:** 943 592601 - 688803665
- **Helbidea elektronikoa:** aelola@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:** eajpnvandoain.eus





Olga Hernández Montero



Ganemos Andoain Irabazi

Soldata: 7.509,75 euroko soldata gordina urtean (20. maila eta %17,64ko lanaldia).

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitortpena](#)

Karguak:

- Ganemos Andoain Irabazi taldeko bozeramailea.
- Ondorengo Batzorde Irizpenemaitetako kide:
Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagunea. / Ekonomia eta Ogasuna. / Zerbitzuak. / Gizarte Zerbitzuak. Hezkuntza eta Kultura. / Euskararen Normalizaziorako Batzordea. / Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria. / Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentza.
- Allurralde Kiroletako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeko kide.

Ikasketak:

- Filosofia eta Letrak, Geografia eta Historia adarrean, lizentziatua.
- Frantsesean goi-mailako gaitasun ziurtagiria.
- Irakaskuntzarako gaitasun ziurtagiria.

Lanbide esperientzia:

- Frantseseko irakasle gisa: CEBANC (Donostia 2014-15), Cei Formación (Irun 2008-15) Gonzalo Akademia (Andoain 2007-15) -Academia London School (2014-15) Welcome School of English (2012-13) Alegiko Institutua (Alegia Octubre 2011) Zubeldia (Donostia 2010-11) INEM (Lasarte 2005-09) DO'S Akademia (Beasain 2007-09) Elduaien Hizkuntz Akademia (1997-2007).
- Gaztelarako irakasle gisa: CEI Formación (2012-13) ZUBELDIA (Lanbide.2010-11) CEI Formación (2011-12) Bera-Bera balonmano (2010) Pausoka Akademia (Tolosa 2008) Elduaien Hizkuntz Akademia (Ordizia 2005)
- Turismoko informatzaile gisa: Lastebide zerbitzu turistiko enpresa (Fikoba.2008) eta Mutrikuko turismo bulegoa (2007)

Hizkuntzak:

- Gaztelera, frantsesa, euskara eta ingelesa.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** Anbrosia Olabide Gizarte Zerbitzuetako Zentrua 3. solairua.
Berarekin elkartzeko aurrez hitzordua eskatu behar da.
- **Telefonoa:** 943 30 08 30 – 409 luzapena.
- **Helbidea elektronikoa:** ohernandez@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:**



Luis Jorge Fernández Mourinho



Soldata: Ez du soldatarik jasotzen. Udalbatzarretan eta dagozkion Batzorde Irizpenemaietan parte hartzeagatik dietak jasotzen ditu (**80,00 €** bilera bakoitzagatik).

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitortpena](#)

Karguak:

- Irabazi Ganar Andoain taldeko bozeramailea.
- Ondorengo Batzorde Irizpenemaietako kide:
Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagunea. / Ekonomia eta Ogasuna. / Zerbitzuak. / Gizarte Zerbitzuak. Hezkuntza eta Kultura. / Euskararen Normalizaziorako Batzordea. / Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria. / Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentza.
- Allurralde Kiroletako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeko kide.

Ikasketak:

- Delineazio eta Topografia.

Lanbide esperientzia:

- Gaur egun, erretiratua.
- Inverex enpresan (Donostia) delineatzaile gisa.
- Construcciones GOÑI enpresan (Donostia) enkofratzaile laguntzaile gisa.
- Construcciones MURIAS SA enpresan (Donostia)gruista, igeltsero eta topografia laguntzaile gisa.

Hizkuntzak:

- Gaztelera eta portugesa.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuetako Zentrua 3. solairua.
Berarekin elkartzeko aurrez hitzordua eskatu behar da.
- **Telefonoa:** 943 30 08 30 – 415 luzapena.
- **Helbidea elektronikoa:** jmourinho@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:**



Alvaro González Cossio

Atxiki gabeko zinegotzia

Soldata: Ez du soldatarik jasotzen. Udalbatzarretan eta PSE-EEko kide zen garaian izendatua izan zen Batzorde Irizpenemailetan, hau da Langileria eta Gizarte Zerbitzuak, parte hartzeagatik dietak jasotzen ditu (**80,00 €** bilera bakoitzagatik).

- [Ondasun eta jarduerari buruzko aitorpena](#)

Karguak:

- Ondorengo Batzorde Irizpenemailetako kide:
Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagunea. / Ekonomia eta Ogasuna. / Zerbitzuak. / Gizarte Zerbitzuak. Hezkuntza eta Kultura. / Euskararen Normalizaziorako Batzordea. / Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria. / Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentza.
- Allurralde Kiroletako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeko kide.

Ikasketak:

- Zuzenbideko gradu bat ikasten.
- Merkataritza eta Marketinean erdi mailako Lanbide Heziketa.
- Batxillergoa.

Lanbide esperientzia:

- Gaur egun, Irungo udalean udaltzain.
- Donostiako udalean udaltzain.
- Securitas Direct (Donostia) harreman komertzial sailean.
- Gonzalez Byass España (Donostia) harreman komertzial sailean.

Hizkuntzak:

- Euskara eta gaztelera.

Harremanetarako datuak:

- **Lan eremua:** Anbrosia Olabide Gizarte Zerbitzuetako Zentrua 3. solairua.
Berarekin elkartzeko aurrez hitzordua eskatu behar da.
- **Telefonoa:** 943 30 08 30 – 413 luzapena
- **Helbidea elektronikoa:** agonzalez@andoain.eus.
- **Sare sozialetako profilak:** [@alvarogcoss](#)

Bestelako datu interesgarriak:

- **Hitzaldiak:** Semes – Euskadi jardunaldietan ponente. Araba 2012
Semes – Euskadi jardunaldietan ponente. Gipuzkoa 2013

Udalbatza Osoaren eskumenak

Herritarren ordezkaritza politikorako organo nagusia da udal gobernuan. Zinegotzi guztiek osaturik eta Alkatea buru dutelarik eztabaidarako organoa da, eta estrategiako erabaki handiak hartzen ditu: araudiak eta bestelako arau orokorrak, udal aurrekontuak, hirigintza-antolamendurako planak, zerbitzuak kudeatzeko erak... onartzen ditu eta, halaber, gobernu-organismoak kontrolatu eta fiskalizatzen ditu.

Udalbatza Osoaren eskumenak honakoak dira (*apirilaren 2ko 7/1985 Legeko, 22. artikulua*):

1. Osoko bilkura zinegotzi guztiek osatzen dute, eta alkatea du buru.
2. Hauek dira, nolana ere, osoko bilkurari dagozkion eskumenak:
 - a) Gobernu-organismoak kontrolatzea eta ikuskatzea.
 - b) Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea; udal-mugartea aldatzea; udalerririk eta 45. artikuluan aipatutako erakundeak sortzea edo ezabatzea; deskontzentratutako organismoak sortzea; udalerriburua aldatzea eta udalerriarren edo erakunde horien izena aldatzea, eta bertako bandera, ikurra edo armarria onartzea edo aldatzea.
 - c) Plangintza orokorrari hasierako onarpena ematea, eta hirigintza-legedian aurreikusitako antolamenduko planen eta gainerako tresnen gaineko udal-izapideen amaiera onartzea.
 - d) Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea.
 - e) Tributu-izaerako baliabide propioak zehaztea; aurrekontuak onartzea eta aldatzea; eta udalaren eskumeneko gaitan gastuak xedatzea eta kontuak onartzea. Hori guztia Toki-ogasunak arautzen dituen Legean xedatutakoarekin bat etorritik.
 - f) Zerbitzuak kudeatzeko moduak eta udalekotzeespedienteak onartzea.
 - g) Beste herri-administrazio batzuek eskuordetzan emandako eskumenak onartzea.
 - h) Beste toki-erakunde batzuei eta gainerako herri-administrazioei eskumen-gatazkak jartzea.
 - i) Langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea; eta funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldikako enbatako eta behin-behineko langileen kopurua eta araubidea finkatzea.
 - j) Akzio judizialak eta administratiboak baliatzea eta udalbatzaren defentsa egitea osoko bilkuraren eskumeneko gaitan.
 - k) Udalaren egintzak kaltegarritzat jotzea.
 - l) Jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
 - m) Kreditu-eragiketak ituntzea, baldin eta ekonomia ekitaldi bakoitzean metatutako enbatako aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen badu, diruzaintzako eragiketak salbuespentzat hartuta, horiek une bakoitzean bizirik dauden eragiketen enbatako metatuak aurreko ekitaldian kitatutako sarrera arrunten 100eko 15a gainditzen duenean baitagozkio. Hori guztia Tokiogasunak arautzen dituen Legean xedatutakoaren arabera.
 - n) **(indargabetua)**.
 - ñ) Obra-proiektuak eta zerbitzu-proiektuak onartzea horiek kontratatu edo horien emakida egiteko eskumenak baditu eta proiektuok aurrekontuetan oraindik aurreikusi gabe badaude.
 - o) **(indargabetua)**.
 - p) Onartuak izateko gehiengo berezia behar dutelako, osoko bilkurari dagozkion gainerako eskumenak.
 - q) Legeek berariaz emandako gainerakoak.
3. Era berean, osoko bilkurari dagokio alkateari ezar diezaiokien zentsura-mozioari buruzko eta alkateak berak jarritako konfiantza-galdekizunari buruzko bozketak egitea; bozketak publikoak izango dira, eta kasu guztietan bakoitzari izenetik deituta egingo dira. Horiek hauteskunde-legedi orokorrean ezarritakoarekin arautzen dira.
4. Osoko bilkurak alkateari eta tokiko gobernubatzarrari eman diezazkieke bere eskumenak eskuordetzan; baina, salbuespen dira artikuluko 2. paragrafoko a), b), c), d), e), f), g), h), i), l) eta p) idatz-zatietan eta 3. paragrafoan zehaztutakoak.

Osoko Udabatzaren Funtzionamendua

Herritarren ordezkariak politikorako organo nagusia da udal gobernuan. Zinegotzi guztiek osaturik eta Alkatea buru dutelarik eztabaidarako organoa da, eta estrategiako erabaki handiak hartzen ditu: araudiak eta bestelako arau orokorrak, udal aurrekontuak, hirigintza-antolamendurako planak, zerbitzuak kudeatzeko erak... onartzen ditu eta, halaber, gobernu-organok kontrolatu eta fiskalizatzen ditu.

Udabatzak ohiko eta ezohiko bilkurak egiten ditu, eta azken horiek, gainera, presazkoak ere izan daitezke.

Ohikoak

Alkateak deituko ditu, gutxienez bi lanegun lehenago eta Osoko bilkurak aldeztatik ezartzen du ohiko saioen maiztasuna.

Andoainen hileko azken ostegunean, 19:00etan, biltzen dira.

Bereziak

Gutxienez bi lanegun lehenago deitzen dira. Alkatearen ekimenez edo zinegotzien legezko kopuruaren laurden baten ekimenez egin daitezke.

Presako bilkura bereziak

Alkateak deitzen ditu, gaiak presakoak izateagatik ezin denean saio berezia deitu, gutxienez bi lanegun lehenagotik. Horregatik, gai-zerrendako lehenengo puntuan berretsi beharko da presa dagoela.

Saioen ezaugarriak

- Deialdiarekin batera, Alkateak, Bozeramaileen Batzordearen (talde politiko bakoitzeko ordezkari batek osatua) irizpena entzunik hala balegokio landu eta igorriko dio Plenoari bilkurako aztergai zerrenda, eta horri jarraiki egingo da bilera. Gai Ordenan azaltzen ez diren gaiak buruz ezingo da akordioak hartu, Korporazio Plenoak gehiengo batez presazkoak jotzen dituen proposamenen kasuan salbu.
- Kideen heren batek azaldu beharko du gutxienez, eta inoiz ez hiru kide baino gutxiago.
- Alkateak eta idazkariak ere bertan egon beharko dute.
- Saio guztien akta idatzi beharko da, eta hurrengo saioan onartuko da.
- Saioak publikoak dira, herritarren intimitateari, ohoreari edo irudiari eragiten dieten gaiak landu behar dituztenak izan ezik.

Udala – Udal Egitura – Udalbatza Osoa – Soldatak

| | Izena | Taldea | Kargua | % Ard. | Sold. gord. Urte ⁽¹⁾ | Dietak ⁽²⁾ | Iruzkina | Guztira |
|----|--------------------|----------|--|---------|---------------------------------|-----------------------|---|-------------------------|
| 1 | Ana Carrere | EH-Bildu | Alkate, Gob. Batzar lehendakari eta Gizarte Zerbitzu eta Kirol Patronatuko lehendakari | % 100 | 44.179,31 € | Ez | | 44.179,31 € |
| 2 | Pedro Unanue | EH-Bildu | 1. Alkateorde, Gobernu Batzarkide eta Zerbitzu eta Udaltzaingo Zinegotzi Ahaldu | | 0,00 € | Bai | Udalbatzarrak, Gobernu Batzarrak eta Batzordeak | Asistentzien arabera |
| 3 | Ainara Rodriguez | EH-Bildu | 2. Alkateorde, Gobernu Batzarkide eta Langileria eta Euskara. Zinegotzi Ahaldu | % 68,6 | 29.204,57 € | Ez | | 29.204,57 € |
| 4 | Jon Zulueta | EH-Bildu | 3. Alkateorde, Taldeko Bozeramale, Gobernu Batzarkide eta Enpleguko Zinegotzi Ahaldu | % 68,6 | 29.204,57 € | Ez | | 29.204,57 € |
| 5 | Estibalitz Mujika | EH-Bildu | Gob. Batzarkide, Kulturako Zin. Ahaldu | % 68,6 | 29.204,57 € | Ez | | 29.204,57 € |
| 6 | Agustín Alberro | EH-Bildu | Gob. Batzarkide, Hirigintza eta Ogasuneko Zinegotzi Ahaldu | | 0,00 € | Bai | Udalbatzarrak, Gobernu Batzarrak eta Batzordeak | Asistentzien arabera |
| 7 | Maidier Lainez | PSE-EE | Alderdiko bozeramale | %100 | 42.572,26 € | Ez | | 42.572,26 € |
| 8 | Ascensión Parrón | PSE-EE | Zerbitzuak, Kultura eta Hirigintza batzordekide | | 0,00 € | Bai | Udalbatzarrak eta Batzordeak | Asistentzien arabera |
| 9 | Daniel García | PSE-EE | Udalbatzarkide | | 0,00 € | Bai | Udalbatzarrak eta Batzordeak | Asistentzien arabera |
| 10 | Petri Romero | PSE-EE | Ogasuna, Euskara eta Enpleguko batzordekide | | 0,00 € | Bai | Udalbatzarrak eta Batzordeak | Asistentzien arabera |
| 11 | Mari Jose Izagirre | EAJ-PNV | Taldeko bozeramale, Enplegu eta Kulturako batzordekide eta Kirol Patronatuko kide | %70,8 | 30.047,52 € | Ez | | 30.047,52 € |
| 12 | Imanol Goenaga | EAJ-PNV | Hirigintza eta Zerbitzuetako batzordekide | | 0,00 € | Bai | Udalbatzarrak eta Batzordeak | Ez du dietarik jasotzen |
| 13 | Iñaki Egibar | EAJ-PNV | Ogasuna, Langileria, Gizarte Zerbitzuak eta Euskarako batzordekide | | 0,00 € | Bai | Udalbatzarrak | Asistentzien arabera |
| 14 | Ainhoa Elola | EAJ-PNV | Udalbatzarkide | | 0,00 € | Bai | Udalbatzarrak | Asistentzien arabera |
| 15 | Olga Hernández | Ganemos | Taldeko bozeramale, Batzorde guztietako eta Kirol Patronatuko kide. | % 17,64 | 7.509,75 € | Ez | | 7.509,75 € |
| 16 | Jorge Mourinho | Irabazi | Taldeko bozeramale, Batzorde guztietako eta Kirol Patronatuko kide. | | 0,00 € | Bai | Udalbatzarrak eta Batzordeak | Asistentzien arabera |
| 17 | Alvaro González | PSE-EE | Langileria eta Gizarte Zerbitzuak batzordekide eta Kirol Patronatuko kide | | 0,00 € | Bai | Udalbatzarrak eta Batzordeak | Asistentzien arabera |

(1) eta (2). IKUS HURRENGO ORRIA / VER PAGINA SIGUIENTE

Udala – Udal Egitura – Udalbatza Osoa – Soldatak

Udal erregelamendu organikoaren arabera eta, EUDELen proposamenari jarraiki, Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2014.01.30ean hartutako akordioaren arabera:

| Taldea | Zineg. | Dagozkion lanaldi oso | Soldata jasotzen duten hautetsiak |
|---------------------|--------|-----------------------|--|
| EH-BILDU | 6 | 3,058 lanaldi | Alkatea %100 lanaldiarekin. 3 Zinegotzi % 68,6rekin |
| PSE-EE | 4 | 1,058 lanaldi. | Zinegotzi bat %100eko lanaldiarekin. |
| EAJ-PNV | 4 | 0,708 lanaldi | Zinegotzi bat %70,8eko lanaldiarekin. |
| Ganemos Andoain | 1 | 0,1764 lanaldi | Zinegotzi bat % 17,64eko lanaldiarekin. |
| Irabazi Andoain | 1 | 0,1764 lanaldi | Dietak jasotzen ditu, soldatarik ez. |
| Atxiki gabeko zin.* | 1 | - | Dietak jasotzen ditu (bi batzorde eta Osoko Udalbatzan parte hartzeagatik), soldatarik ez. |

* Alvaro González Cossio, PSE-EE taldeko zinegotzi ohia.

| Alkate - Zinegotzien soldatak | Maila | Soldata gordina hilean |
|-----------------------------------|-------|------------------------|
| Alkatea | 21 | 3.155,66 € |
| Zinegotziak: Denbora osoko ardura | 20 | 3.040,88 € |
| Zinegotziak: Zatikako ardura | 20 | Lanaldi % arabera |

| Dietak * | Bakoitzak ** |
|--|--------------|
| Udalbarretara bertaratzeagatik | 80,00 € |
| Tokiko Gobernu Batzarretara bertaratzeagatik | 80,00 € |
| Batzorde Irizpenemailetako lehendakariak | 80,00 € |
| Batzorde Irizpenemailetara bertaratzeagatik | 80,00 € |

(*) Erabateko arduraldirik edo zatikako arduraldirik ez duten zinegotziek

(**) Hilabetean Udalbatza 1 – Gobernu Batzarrak 1 edo 2 – Batzorde irizpenemaileak 1 edo 2

Udalan ordezkariak duten talde politikoek jasotako asignazioak

| Talde politikoei emandakoak | Hilean /Mes |
|--|-------------------------------|
| Kopuru finkoa | 485,00 € taldeko |
| Kopuru aldakorra, taldekideen araberakoa | 165,00 € zinegotzi bakoitzeko |

Guztira

| Taldea | Zinegotziak | Zenbatekoa hilean |
|---------------------------|-------------|-------------------|
| EH-BILDU | 6 zinegotzi | 1.475,00 € |
| PSE-EE | 4 zinegotzi | 1.145,00 € |
| EAJ-PNV | 4 zinegotzi | 1.145,00 € |
| Ganemos | zinegotzi 1 | 650,00 € |
| Irabazi | zinegotzi 1 | 650,00 € |
| Atxiki gabeko zinegotzia* | zinegotzi 1 | 0,00 € |

* Alvaro González Cossio, PSE-EE taldeko zinegotzi ohia.

Aitor egilea / Declarante

| | | |
|--|--|--|
| Izena-Deiturak: / Nombre-Apellidos: Ana Carrere Zabala | Izendapen data / Fecha nombramiento 2015.05.24 | Aitorpen data / Fecha declaración 2015.06.13 |
|--|--|--|

1.- Ondare ondasunen aitortpena / Declaración de bienes patrimoniales

| 1.- Ondare ondasunak (pisuak, garajeak, lokalak... 1.- Bienes patrimoniales (pisos, garajes, locales...) | Katastroko balioa Valor Catastral | Parte hartze % % participación | Eskuratzte urtea Año adquisición |
